


# Alternatiben herria

## Urriak 24. Bilbo



Azken hilabeteetan sarri entzun eta irakurri dugu ELAren ekimen eta publikazioetan urriaren 24an Bilbon Euskal Herri mailako Alternatiben Herria ospatuko dela. Baino oraindik bada Alternatiben Herria zer den ez dakieneik. Hurrengo asteetan eta data gerturatzeten den heinean, informatzen arituko gara denok ezagutu eta parte hartu dezagun.



### Zergatik dugu orain Alternatiben Herria bezalako dinamika baten beharra?

Ekimen honekin, Parisen abenduan egingo den Klima Aldaketari buruzko goibilera (COP21) dela eta, Iparraldeko Bizi! mugimenduak Alternatiben Herriak antolatzeko egindako deialdiari erantzungo diogu. Europako beste 80 tokitan egin duten bezala.

COP goibilera urtean behin egiten da eta Klima Aldaketaren inguruko Nazio Batuen Konbentzioa sinatu duten 196 herrialdek partehartzen dute. COP hauetan erabakiak hartu beharko lirateke, konpromiso lotesleak planetaren beroketa 2 gradi zentigraduren azpitik mantentzeko. 2009an Kopenhagen egin zen COP15ean Kiotoko protokoloa gaindituko zuen neurri sorta onartu behar zen, baina gobernuak multinazionalen nahiei men egin eta ez zuten ezer egin. Ordutik, akordioak urte batetik bestera luzatzen ari dira. Aurten Parisekoa ere istorio bera izango da.

Bitartean, klima aldaketa jarduera ekonomikoak sorturikoa dela gero eta argiago erakusten duten datuak ditugu. Gobernuak ez daude egoerak eskatzen duenaren mailan eta konpromiso eta neurri lotesle ezak hondamendi ekologiko eta sozialera garamatza. Sistema ekonomikoa, injustizia soziala eta klima aldaketaren arteko erlazioa erabatekoa da. Horregatik borroken artean ere lotura estua dago “Aldatu sistema ez klima” lemapean.

Ondorengo hilabete eta urteetarako beste dinamika bat jorratzen ari da klima aldaketari aurre egin eta justizia soziala eraikitzearen bidean. Borroka hau ez baita klima aldaketari aurre egiteko soilik, kapitalismoari aurre egiteko ere bada. Dagoeneko oso argi dugu klima aldaketa kapitalismoaren beste ondorio tamalgarri bat dela.

Alternatiben Herria aldarrikapenetik alternatibara pasatzeko pausua da. Sistema aldatu beharraren urgentziak estrategia berriak bilatzera eraman gaitu. Mundu mailako eztabaidea bihurtu da hau, hitzetatik ekintzetara pasatzea. Beharrezko da mobilizazioa eta borroka urte osoan zehar izatea, COP goibilerako dataz haratago. Hemendik aurrera gure indarra eta nahia kalean erakutsiko ditugu, mobilizazioaren bitartez eta Alternatiben Herria bezalako ekimen ugariren bitartez. Aldarrikapenetatik alternatibak ditugula erakustera.

### Zer izango da Alternatiben Herria?

Jasaten ari garen eraso guztien aurrean alternatibak ditugula erakusteko bidea izango da. Botereetatik behin eta berriz sinestarazi nahi digute bide bakarra dagoela, ez dagoela beste alternatibarik. Baino guk Euskal Herrian aurrera eramatzen ari garen alternatibak eta proiektuak erakutsi nahi ditugu. Erakustearekin batera, informazioa partekatu, elkar ezagutu, gure artean gogoeta egin eta eztabaideatuko dugu, denon artean gure alternatibak saretzeko eta indartzeko.

Bilboko erdigunea, herri txiki  
bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz  
eta baikortasunez beteko dugu. Landuko den  
ardatz bakoitza "auzo" bat izango da, eta  
auzo bakoitzean arlo horretan martxan  
dauden alternatibak ezagutaraziko dira  
jarduera ezberdinen bitartez: hitzaldiak, mahai  
inguruak, azoka, tailerrak, kale ikuskizunak,  
jolasak,... Noski, egunak festa kutsua izan  
dezan kale animazioa, jan-edanerako gunea,  
musika,... ez dira faltako.



5 auzo hauek egongo dira eduki hauek  
landuko dituztenak:

- **Natura:** energia, klima aldaketa, hondakinak, mugikortasuna, elikadura burujabetza, kontsumoa,...
- **Economia eredua:** finantzak, txanpona, ekonomia sozial eraldatzalea, aberastasunaren banaketa, enplegua,...
- **Demokrazia:** eredu ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa erabakitzeko eskubidea, partehartze soziopolitikoa, partehartze prozesuak, herrien arteko elkartasuna...
- **Bizitza anitz eta duinak:** harremanak, gorputzak, jatorria, identitatea, sexu, funtzionalitatearen inguruko aniztasunaren kudeaketa,...
- **Ondare komuna:** euskal hizkuntza, hezkuntza, euskal kultura.

Eraldaketaren bidean, denon lana  
beharrezkoa izango da Alternatiben Herria  
antolatzeko eta baita ondoren alternatibak  
eraikitzen jarraitzeko ere.

## Nola ari da eraikitzen Alternatiben Herria?

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak 2014ko urrian egin zen asanbladan onartu zuen 2015eko urriaren 24an Bilbon Alternatiben Herria ospatzea. Jadanik hilabete ugari pasa dira eta lan asko egin da, eta oraindik ere egiteko ugari ditugu.

Apirilean deialdi zabal bat egin zen Kartan parte hartu zuten sindikatu eta mugimendu sozialak, beste eragile batzuekin batera, asanblada batean bildu eta Alternatiben Herria elkarrekin antolatzeko gonbita egiteko. Eragile ugari batu ziren lanera eta apirila eta maiatzean zehar lan taldeak eratu eta herria osatuko duten auzoek forma hartzeko antolaketa lanak izan ziren. Ekainean egin zen aurkezpen publikoa.

Auzo bakoitzak bere dinamika propioa du. Auzo bakoitzean erabakitzentz da zein gai landu, ze mahai-inguru eta eztabaidea izango dituzten eta baita beste ekimen mota ugari ere: tailerrak, performanceak, musika berezia, azokak,... Urrian izango dugu egitarau zehatza, baina gaurdanik esan daiteke benetan ikusgarria izango dela!

Alternatiben Herriaren helburua ez da urriaren 24an ahalik eta jende gehiena biltzea soilik. Are garrantzitsuagoa izango da ondoren esperientzia eta eragile guzti hauek elkar ezagututa osatuko duten sarea, eta alternatibak biderkatzen joatea eta txoko guztieta iristea. Horregatik oso garrantzitsua da beste eredu baten alde lanean ari garen guztiok honetan implikatzea. Dagoeneko lortzen ari gara eragile eta esperientzia kopuru oso handi batek parte hartzea. 120 eragile ezberdiniek kontaktatu dugu, 65 ari dira buru-belarri lanean, eta dagoeneko 100 esperientzia edo alternatiba konkretu identifikatu dira. Eta zerrenda goraka doa etengabe eta urriaren 24an askoz ere gehiago izango gara.

Ordurarte hainbat ekimen eta aurkezpen egingo dira Euskal Herriko eskualde eta herrietan, denok Alternatiben Herria ezagutu dezagun eta deialdia ahalik eta gehien zabaltzeko. Alternatiben Herrian 10.000 pertsonatik gora elkartuko garal! Parte hartzen animatzen zaitugu!

## Zergatik bultzatzen du ELAk Alternatiben Herria?

ELAn badakigu zein garrantzitsua den gaur egun daukagun sistema jasangaitz eta injustuaren aurrean alternatibak eskaintza. Kapitalismoa, murrizketa politikak eta hauen ondorioz sufritzen ari garen egoera larriari aurre egiteko denbora daramagu ELAn alternatiben inguruan lanean. Horregatik uste dugu behar beharrezkoa dela Alternatiben Herria bezalako ekimen bat aurrera eramatea, gure indarrak horretan jartzeara eta beste batzuekin batera bide hau egitea.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren prozesuan ELAk partehartze handia izan du. Adostu ziren aldarrikapenekin guztiz bat gatoz, gure borrokkak bertan islatzen dira eta beste asko ere hartzen ditu bere baitan: langileon eskubideak, bizitzaren zentruan pertsonak izatea eta ez merkatuak, aniztasunari errespetua eta babesoa, planetaren mugai erreparatzea... Sindikatuaren eguneroko lanean aldarrikapen hauek egiten ditugu eta horregatik Eskubide Sozialen Karta gure egin dugu hasieratik.

Baina orain beste pausu bat emateko garaia iritsi da. ELAn alternatibak ditugula aldarrikatzen dugu; borroka sindikala gure alternatiba da. Aldarrikapenetatik alternatibak eraikitza eraikitzera pasatzeko garaia da. Horregatik Alternatiben Herria gure egiten dugu.

Dagoeneko badira Euskal Herrian hainbat eta hainbat alternatiba sortuta arlo ezberdinan, eta beste asko sortzeko bidean: ekonomia eraldatzaile eta sozialean aritzen direnak, energia berritzagarrien kooperatibak, elikadura burujabetzan aurrera egiteko ekimenak, hezkuntza eta aisiaidirako proiektu berritzaileak, ekonomia feministak, lanaren banaketaren inguruko proposamenak... Alternatiben Herriaren helburu nagusia dagoeneko martxan dauden esperientzia hauek urriaren 24an Bilbon elkartzea eta gizarte eredu berri batean sinesten dugunoi ezagutaraztea da. Erakusleihoko izateaz gain, hausnarketarako tokia ere izango da, etorkizuneko erronkei nola aurre egin eztabaidatzeko eta bide berean lanean ari garenok saretu eta etorkizunerako elkarlana indartzeko.

## ALTERNATIBEN HERRIAN, SISTEMA ALDATZERA GOAZ Egin deia zuk ere!

**Alternatiben Herrian parte hartzen eta dei hau zabaltzen gonbidatzen zaituztegu. Parada ederra daukagu alternatibak ditugula erakusteko.**


[http://alternatibenherria.eus/  
manifestua-atxikimenduak/](http://alternatibenherria.eus/manifestua-atxikimenduak/)



Argitarapen honetan baso kudeaketa Jasangarri bidez ekoiztutako paper ekologikoa erabili da.

# Alternatiben herria

## 24 de octubre. Bilbao



En los últimos meses hemos venido informando en los actos y publicaciones de ELA que el 24 de Octubre se va a celebrar en Bilbao Alternatiben Herria, a nivel de Euskal Herria. Sin embargo, todavía hay quien no sabe exactamente en qué consistirá el Pueblo de las Alternativas, por lo que en las próximas semanas, y a medida que se vaya aproximando la fecha de su celebración, nos volcaremos en informar y difundir su contenido, para que toda la gente lo conozca y pueda participar.



### ¿Por qué necesitamos ahora una dinámica como Alternatiben Herria?

Con esta iniciativa secundaremos la convocatoria del movimiento Bizi! de Iparralde, hecha con motivo de la Cumbre del Cambio Climático (COP21) que se celebrará en París en diciembre, y que ya se ha realizado en más de 80 lugares en Europa.

La COP es una Conferencia anual en la que participan los 196 gobiernos que han firmado la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático. En las COP se deberían adoptar medidas, compromisos vinculantes, con el fin de mantener el calentamiento global del planeta por debajo de los 2°C. La COP15 que tuvo lugar en Copenhague en 2009 tenía que haber sido el momento de acordar las medidas que superasen el protocolo de Kyoto. Sin embargo, los gobiernos se plegaron a los intereses de las grandes empresas multinacionales, y no adoptaron las medidas necesarias.

Desde entonces cada año los acuerdos se remiten al año siguiente. Este año en París la historia se va a repetir. Mientras tanto, las evidencias de que el calentamiento global es producido por la actividad económica son irrefutables desde un punto de vista científico. Los gobiernos no están a la altura y su falta de compromiso y de medidas vinculantes nos está llevando al desastre ecológico y social. La relación entre sistema económico, injusticia social y cambio climático es absoluta. Las luchas están conectadas por el lema "Cambiemos el sistema, no el clima".

Se está perfilando para los próximos meses y años una nueva dinámica para hacer frente al cambio climático y para construir la justicia social. Efectivamente, esta lucha no es sólo para oponernos al cambio climático, sino que nuestra oposición se extiende también al capitalismo. De hecho tenemos ya muy claro que el cambio climático es otra consecuencia fatal del capitalismo.

Alternatiben Herria es una iniciativa que pretende pasar de la reivindicación a la consecución de las alternativas. La urgencia nos ha llevado a buscar nuevas estrategias. La necesidad de pasar de las palabras a los hechos se ha convertido en tema de debate global. Vemos necesario ampliar la movilización y la lucha a todo el año, más allá de las fechas de la COP. En adelante nos emplearemos en mostrar en calles y plazas nuestra fuerza y determinación a través de movilizaciones y de multitud de iniciativas como la de Alternatiben Herria. Pasaremos a hacer visibles las alternativas que tenemos.

### ¿En qué consistirá Alternatiben Herria?

Será la vía para mostrar que tenemos alternativas. Los poderes dominantes están empeñados en hacernos creer que sólo hay un camino, y que éste no tiene alternativa; pero nosotros/as queremos hacer visibles y reales las alternativas y proyectos que llevamos a cabo en Euskal Herria. Y además de hacer visibles las propuestas, queremos compartir información, conocernos, reflexionar juntos y debatir, para que nuestras alternativas salgan más entrelazadas y reforzadas.

El centro de Bilbao se convertirá en el lugar de nuestras reflexiones, de nuestras alternativas concretas, y será un espacio para el optimismo. En cada recinto o "barrio" se trabajará un eje de actuación, y las alternativas que están en marcha se darán a conocer a través de distintas actuaciones: coloquios, mesas redondas, ferias, talleres, espectáculos callejeros, juegos... Y, por supuesto, para que la jornada no pierda su aire festivo no faltarán animaciones, área de restauración, música...



Habrá 5 "barrios", donde se trabajarán las siguientes áreas:

- **Naturaleza:** energía, cambio climático, residuos, movilidad, soberanía alimentaria, consumo...
- **Modelo económico:** finanzas, moneda, economía social transformadora, reparto de la riqueza, empleo...
- **Democracia:** derecho a decidir el modelo económico, social, cultural y político, participación socio-política, procesos participativos, solidaridad entre los pueblos...
- **Vidas dignas y diversas:** relaciones, identidad corporal, de origen, sexual, funcional, gestión de la diversidad...
- **Patrimonio común:** euskara, educación, cultura vasca.

En el proceso de transformación será necesaria la aportación de todos y todas, y también nuestro trabajo para la organización de Alternatiben Herria, y para seguir construyendo alternativas.

## ¿Cómo se construye Alternatiben Herria?

En la asamblea de octubre de 2014 de la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria se aprobó la celebración de Alternatiben Herria, para el 24 de octubre de 2015. Desde entonces han pasado muchos meses y se ha hecho mucho trabajo, pero todavía nos quedan multitud de tareas por hacer.

En abril los sindicatos y movimientos sociales participantes en la Carta, junto a otros más, se reunieron en asamblea e hicieron un llamamiento para la organización conjunta de Alternatiben Herria. Numerosos agentes sociales secundaron la convocatoria, y a lo largo de abril y mayo se formaron grupos de trabajo que se han encargado de ir dando forma al "pueblo" de las alternativas. En junio se presentó públicamente esta iniciativa.

Cada "barrio" tiene su dinámica propia. En cada uno de ellos se decidirán las materias, mesas redondas y debates que se han de abordar, así como otras muchas actividades, como talleres, performances, música específica, ferias... El programa concreto de actos estará disponible para octubre, pero podemos adelantar que se tratará de un programa verdaderamente atractivo.

El objetivo primordial de Alternatiben Herria para el 24 de octubre no es medir su capacidad de convocatoria. Se trata de algo más importante, como es el entrelazar redes entre los agentes participantes, intercambiar experiencias, conocerse mutuamente, buscar sinergias y llegar a todos los rincones. Por eso, es de vital importancia implicar a cuantas personas y organizaciones trabajan en la búsqueda de otro modelo. Y estamos consiguiendo que participen un gran número de agentes y experiencias. Hemos contactado con 120 agentes diferentes, de los cuales 65 se han volcado plenamente en las tareas de organización, y ya hemos podido identificar 100 experiencias o alternativas concretas. Pero la lista va en aumento, y esperamos que crezca mucho más para cuando lleguemos al 24 de octubre.

Para entonces están previstos numerosos actos y presentaciones en las comarcas y pueblos de Euskal Herria, para que Alternatiben Herria sea conocida y para que la convocatoria tenga una amplia difusión. En Alternatiben Herria nos juntaremos más de 10.000 personas. Te animamos a participar.

### ¿Por qué apoya ELA a Alternatiben Herria?

En ELA sabemos muy bien lo importante que resulta poder ofrecer alternativas al insostenible e injusto sistema actual. Llevamos mucho tiempo ofreciendo alternativas al capitalismo, a las políticas de recorte y a las situaciones extremas derivadas de ellos. Por ello creemos que es absolutamente necesario sacar adelante una iniciativa como Alternatiben Herria, y para ello poner todas nuestras fuerzas en el empeño, y colaborar con otros agentes en su desarrollo.

ELA ha tenido una intensa participación en el proceso de creación de la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria. Estamos totalmente de acuerdo con las declaraciones que se adoptaron, donde se han visto reflejadas nuestras luchas y otras muchas: derechos de los trabajadores y trabajadoras, dar centralidad a las personas en vez de a los mercados, respeto y protección a la diversidad, considerar los límites del planeta... Todas estas reivindicaciones forman parte de nuestro trabajo diario en el sindicato, por lo que las hemos suscrito desde el principio en la elaboración de la Carta de Derechos Sociales.

Pero ahora ha llegado el momento de dar otro paso más. En ELA proclamamos que

tenemos alternativas; la lucha sindical es nuestra alternativa. Hay que pasar de los manifiestos a la consecución de las alternativas. Por eso hemos hecho nuestro el proyecto de Alternatiben Herria. En Euskal Herria se han creado ya numerosas alternativas en distintas áreas, y otras muchas están en vías de creación: las relativas a una economía transformadora y social, las cooperativas de energías renovables, las iniciativas impulsoras de la soberanía alimentaria, los proyectos innovadores de educación y ocio, la economía feminista, las propuestas en torno al reparto del trabajo... El objetivo principal de Alternatiben Herria es reunir a todos y todas los que creemos en un nuevo modelo social y difundir entre nosotros todas esas experiencias. De esa manera, además de un escaparate, será también un espacio para la reflexión, para el debate sobre los retos del futuro y, al mismo tiempo, una plataforma para el fortalecimiento de las redes de comunicación y de la cooperación de los que nos movemos en estos campos.

### EN EL PUEBLO DE LAS ALTERNATIVAS, VAMOS A CAMBIAR EL SISTEMA Súmate y haz tú también el llamamiento!

Os invitamos a participar en el Pueblo de las Alternativas y a difundir este llamamiento. Tenemos una oportunidad única para demostrar que tenemos alternativas.

[http://alternatibenherria.eus/  
sumate-al-llamamiento/](http://alternatibenherria.eus/sumate-al-llamamiento/)



Publicación elaborada con papel ecológico producido en explotaciones forestales sostenibles